

ITXI, ARREN!

Ba-noakizu, ta itxi, arren,
ene Senar goi-goiko orrek;
ez nagizu alboratu,
zure ¡txas-galtzarrean dedin
nire ¡bai au asazkatu.

Sorosi naizu gerizpean,
t'ene ardura leialari
emon adar merezia,
kezbage atsedan dakidan
zure mosuz arimia.

Besoak luzatu daustazuz,
ta beingoz noakizu eske;
Zuk bait-dozu, Jaun laztana,
zor daustazun ezer gitxia
ta nik zor dautzudan dana.

Lotazi maite agintzeak
barnea atxillotuz biurkeiz.
Nik, barriz, Zu besarkatzeko
daukadaz —mats-aien goritu—
zabal-zabalik bi beso.

Zuk besoak ba'damostazuz,
nik arima orde z emongo;
begiak begiz kiskaltzen,
ezpanak ezpan su-jaurtika,
gaitezan beti alkarren.

Biotza damotzut eria.
zauri orreik bekidaz poza:
bion barneko gorbizak
zeruko atea baitira,
neutzat edegi ziranak.

AINTZA TA AINTZA

Zeru ta lur aundi zarean Jauna,
zeure aintzarako ein zendun dana.

Milloika izarkiz ortzea garden,
zure ospearen igarle guren.

Lurra, Zuk jantzia gauza bikaiñez,
aspertzake dabil zure gorantzez.

Ala ta jakiña goiak azaltzen,
ederraren dirdai beiak abesten.

Zerk erakar zaitu, zerua itxirik?
Lastoan zerk zaukaz orren apalik?

Belen'go askea erruki aulki,
zure azkenbako aintz-ezaugarri.

Ostoak dardarti dagoz ezerik,
Izadi amaren doiñuz izorrik.

Itxasoak —mamu azkar— kantari
erantzuten dautso zure aintzari.

Barru-espexean giza-biotzak
antsi gozoka dauz bere ai-otsak.

Biotz eta txori, zeru ta itxaso
goraka daukazuz, Jainko arbaso.